Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

# Laneko Osasunaren Informazio Buletina

96 alea/ 2023ko Uztaila - Abuztua

## Berritasunak




**Lan eremuan beroarekiko esposizioari prebentzioa.** Uda garaiarekin batera, eta klima-aldaketaren eraginez tenperaturak gora egiten ari direla ikusita, Lan Osasunaren Zerbitzuak gogorarazi nahi du garrantzitsua dela **uda osoan oinarrizko gomendio batzuk** jarraitzea, ez bakarrik beroagatiko alerta dagoenean. 2022an, beroari lotutako patologien % 18,4k lan eremua izan zuten jatorria. Beroa eta lana webgunean informazio zehatza, infografiak eta dibulgazio-materiala aurki daitezke **lantokietan beroak eragindako deserosotasun edo estres termikoko egoerak saihesteko** neurri guztiei buruz. Helburua da 2023ko uda honetan beroarekiko esposizioak ahalik eta eragin txikiena izatea gure erkidegoan.

---

**Gasolindegietara bisita-kanpaina, horietan prebentzio-kudeaketa hobetzeko.** Lan Osasunaren Zerbitzuak **gure erkidegoko 140 gasolindegitara** bisita-kanpaina amaitu berri du. Jarduera hori lan-istripuak murrizteko programaren barruan dago (***2022-2025 Lan Osasuneko Ekintza Plana****ren* programetako bat da). Kanpainaren emaitzek erakusten dutenez, zerbitzuguneetako langileek arrisku larriak dituzte, eta horietako batzuk identifikatu gabe daude. Bisitatutako gasolindegi bakoitzerako txosten bat egin da, hobekuntza-proposamenekin. Gainera, ondorio orokorrak biltzen dituen informazio eta dibulgazio materiala egitea aurreikusten da, sektoreko ezbehar tasa murrizten laguntzeko.



## Nabarmendua




**ESTALKI BAT DUZU? Arrisku bat duzu.**
Uda iristearekin batera, nabarmen igotzen da **altueran egindako lanen kopurua**, eta heriotza-tasa handienetako jardueretako bat da. Hori dela eta, Lan Osasunaren Zerbitzuak azpimarratu nahi du eraikin eta instalazio industrialetako titularrek ardura beren gain hartu behar dutela **estalkietan mantentze-lanak egin, horietara iritsi eta lanak egitearen arriskuak identifikatzeko eta beharrezkoak diren prebentzio-neurriak zehazteko.**.

- Argibide gehiago

---

**NOPLOIko teknikariek LSINren *Nekazaritza Sektorean LAP ikastaroan* saio bat eman dute**. NOPLOI izan zen LSINren Nekazaritza Sektorean LAP ikastaroa emateko ardura izan zuen erakundeetako bat. Ikastaroa Sevillan egin berri da. Prestakuntza ekintza horren helburua izan zen lantzea sektoreko ezbehar tasa, traktoreak eta nekazaritzako makineria. Zehazki, gai hauek landu zituzten: pestizidak, arrisku fisiko eta biologikoak, eta giharrei eta eskeletoari lotutako nahasmenduak.



---




**LANEren 190. Hitzarmena sartu da indarrean Espainian.** Joan den maiatzaren 25ean sartu zen indarrean Espainian ***LANEren 190. Hitzarmena, lan munduan indarkeria eta jazarpena deuseztatzeari buruzkoa.*** Hitzarmen hori 2019an onetsi zuen LANEk eta duela urtebete berretsi, eta "pertsona orok indarkeriarik eta jazarpenik gabeko (genero-arrazoiengatiko indarkeria eta jazarpena barne) lan mundu batean aritzeko duen eskubidea aitortzen du".

## Berriak

- La Plataforma Navarra de Salud reclama la integración de las mutuas en el sistema público
  Diario de Navarra
- Condenada una empresa navarra por la muerte de un trabajador por el amianto de sus guantes
  Diario de Navarra
- Navarra activa el plan de prevención por altas temperaturas con estas recomendaciones
  Diario de Noticias
- La somnolencia excesiva ya es causa de incapacidad laboral permanente
  El País
- Salud Laboral tramitó 211.321 bajas en Navarra, un 17% más que en 2021
  Diario de Noticias
- Cómo solicitar la baja por regla dolorosa: estos son los requisitos para pedirla
  Cadena Ser
- El Gobierno de Navarra convoca ayudas por 420.000 euros para fomentar la cultura de la prevención de riesgos laborales
  Gobierno de Navarra

## Agenda

insst

Webinario
**TALLER DE ENFERMEDADES EMERGENTES TRANSMITIDAS POR VECTORES EN EL ENTORNO LABORAL EN ESPAÑA**
Birtuala – Irailak 26

- Programa

insst

Webinario
**INSPECCIONES OBLIGATORIAS EN EQUIPOS ELÉCTRICOS EN ZONAS ATEX**
Birtuala– Urriak 4

- Programa

insst

Mintegia
**MÉTODO FPSICO. MÉTODO DE EVALUACIÓN DE FACTORES PSICOSOCIALES. CASO PRÁCTICO.**
CNVM Barakaldo – 5 de octubre

- Programa
- Izen-ematea

## Argitalpen digitalak




**Directrices para una eficaz coordinación de actividades empresariales**
INSST




**Impacto de la COVID-19 en los programas de Promoción de la Salud en el Trabajo**
INSST




**Tiempo de trabajo y conciliación de la vida laboral y personal en el mundo**
OIT




**Estudio de casos de sospecha de cáncer profesional (2011-2021)**
IAPRL




**Estudio sobre la eficacia de guantes y ropa de protección frente a nanopartículas**
INSST




**Campaña "Con sol es tiempo de prevención"**
INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektroniko honetara ispln.ufii@navarra.es

**ARGITARATZAILEA:**
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
(Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)
☎ 848 423 771
Edizio-formatua: Fitxategi elektronikoa.
2023ko uztaila - abuztua